



**UPV/EHUko IKERTALDEENTZAKO LAGUNTZEN  
DEIALDIA  
(2026-2029)**



## SARRERA

Ikerketa da UPV/EHUren funtsezko eginkizunetako bat, jakintza sortzaile, irakaskuntzaren oinarri, komunitatearen aurrerapenerako baliabide eta jakintza gizarteratzeko bitartekoa den aldetik. Hori dela eta, unibertsitate honen helburu garrantzitsuenetako bat da ikerketa zientifikoa, teknikoa, humanistikoa eta artistikoa garatzea, eta ikertzaileak trebatzea. Gainera, ikertaldeak sortu eta garatzeaz gain, bultzada ematen die ikerketaren kalitateari, diziplinartekotasunari eta bikaintasun sareetan integratzeari, bai eta beste erakunde edo enpresa batzuekin ikertalde mistoak sortzeari ere.

Laguntza hauen bitartez, estutu egin nahi da Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarea osatzen duten beste eragileekiko elkarlana, eta indartu egin nahi dira unibertsitateko ikertaldeak, deialdi lehiakorrenetan parte hartzeko: hala nola, Eusko Jaurlaritzaren Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Planaren programetan edo Estatuko eta Europar Batasuneko deialdietan.

UPV/EHUko ikertaldeentzako deialdiak (2026-2029) bi modalitate ditu:

- I. modalitatea. Unibertsitate ikertaldeentzako laguntzak.
- II. modalitatea. Ikertaldeentzako laguntzak, Euskal Unibertsitate Sistemako (aurreratzean, EUS) Ikertalde Finkatuentzako 2026-2029 deialdian parte hartu arren (Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuaren 2025eko irailaren 2ko Agindua), aitortzarik jaso ez dutenak edo, aitortza jaso arren, finantzaketarik lortu ez dutenak.

Oro har, UPV/EHUko unibertsitate ikertaldeak aldi baterako sortzen dira, epe ertainera EUSeko Ikertalde Finkatu bihurtzeko asmoz. Alde horretatik, modalitate biak bateraezinak dira; hots, EUSeko ikertaldeentzako Eusko Jaurlaritzaren laguntza deialdira aurkeztu diren ikertaldeak ezin izango dira aurkeztu deialdi honen I. modalitatean.

Deialdi honetan aitortza jasoko duten ikertaldeak 4 urtez arituko dira (2026tik 2029ra), modalitate bietan. 4.200.000 € erabiliko dira bi modalitateak finantzatzeko. Lehen urtean, 1.100.000 €, eta finantzaketan kontuan hartuko da Eusko Jaurlaritzarekin 2023-2026 urteetarako eginiko Bikaintasunezko Ikerketaren Programa Kontratuaren barruan ezarritako kopuruaren arabera zehaztutako aurrekontu kreditua; zehazki, ekintza honetan: "Ikertaldeein laguntzea, ikerketa egituratzeko erreferentziazko unitate gisa, nazioartean lehiatu daitezela". Hurrengo urteetan, finantzaketa izango da urteko aurrekontuetan erabilgarri egongo den kredituaren arabera. Dena dela, deialdiaren gutizko finantzaketa handitu ahal izango da, aurrekontuek horretarako aukera emanaz gero.

Modalitate bakoitzerako kredituaren proportzioa izango da ebaluazioan lortutako emaitzen arabera.

Hori horrela, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordearen (aurreratzean, IGBB) txostena Gobernu Kontseiluan aurkeztu ondoren, Ikerketa Errektoreordetzak erabaki du deialdi hau onartzea, ondoren azalduko diren termino eta baldintzetan.

## I. MODALITATEA: UNIBERTSITATE IKERTALDEENTZAKO LAGUNTZAK

### 1. OINARRIA. XEDEA

Deialdi honen xedea da UPV/EHUko ikertaldeek ikerlana erraztea eta sustatzea, eta ikerlan horren kalitate zientifikoa handitzea, dirulaguntzak emanda, jakintzaren bost arloetan: Zientziak, Ingeniaritza eta Arkitektura, Osasun Zientziak, Gizarte eta Lege Zientziak, eta Arteak eta Giza Zientziak.

Ikerketa ekintzen bidez, oinarrizko helburu hauek bete nahi dira:

- Oinarrizko ikerketa sustatzea, jakintza maila handitzeko, berezko ondasun den aldetik.
- Ikerketa estrategikoa bultzatzea, berrikuntza sustatzeko, lehiakortasunerako eta gizarte ongizatea hobetzeko elementu gisa.
- Lankidetzazko ikerketa sustatzea, unibertsitatearen eta enpresen nahiz gainerako eragile sozialen artean.
- Ikertalde emergenteak babestea, berriak izanik deialdi lehiakorragoetan lehiatzeko bikaintasun maila lortu ez dutenak.

Sarreran esandakoari jarraituz, deialdi honen helburua da ikertalde egonkorak sortzea, bikaintasuneko ikerketa egingo dutenak, eta gai izango direnak etorkizun hurbilean parte hartzeko EUSEko ikertalde finkatuentzako laguntzen deialdian.

Beraz, deialdi honen bidez, kuantifikatu eta adjudikatu egin nahi da ikertalde bakoitzari emango zaion dirulaguntza, proposatzen duen urteko programa burutu dezan. Behin programa hori ebaluatuta, ebaluazioa aldekoa bada, UPV/EHUren aitortza jasoko du ikertaldeak.

### 2. OINARRIA. IKERTALDEEN EZAUGARRIAK

2.1 Deialdi honetan sortuko diren ikertaldeak 4 urtez arituko dira lanean: 2026tik 2029ra. Ikertaldeek gutxienezko osaera eta egitura izan beharko dituzte, denboran iraun eta bikaintasun zientifikoko beren helburuak bete ditzaten, dirulaguntza jasoko duten denboran.

2.2. Dirulaguntza eskatzeko, ikertaldeek kide hauek izan beharko dituzte:

- UPV/EHUrekin lotura iraunkorra duten lan kontratadunak edo funtzionarioak.
- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen 23. artikuluko modalitatean kontratatutako ikertzaileak (itzal handiko ikertzaileen kontratua); Ramon y Cajal programako UPV/EHUko kontratupeko ikertzaileak; Ikerbasque programako ikertzaileak; UPV/EHU-CSIC zentro mistoetako doktore atxikiak; irakasle atxikiak; irakasle laguntzaile doktoreak; atxikiak izan diren bitarteko lan kontratadunak; unibertsitate ospitaleetako irakasguneetako irakasle elkartu/bitarteko lan kontratadun/ordezko doktoreak.
- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen kontratuetan jasotako kontratu modalitateen bidez UPV/EHUri lotutako ikertzaile ez-iraunkorrek: 21. artikulua (doktorego aurreko kontratuak) eta 22. artikulua (Espainiako Zientzia eta Teknologia Sistematan sartzeko kontratua).  
Doktorego aurreko prestakuntza bidean dauden ikertzaileen kasuan, doktorego tesiaren zuzendariak agertu beharko du eskaeran.
- Lanaldi osoko bitarteko lan kontratadunak eta irakasle elkartu doktoreak, b. puntuari sartzeko ez direnak kasu bietan; unibertsitate ospitaleetako irakasguneetako irakasle elkartu/bitarteko lan kontratadun/ordezko doktoreak; ikerketan laguntzeko akademikoak, aintzat harturik unibertsitate arautegian ezarritako prozedurak; eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko Legearen 23 bis artikuluko modalitatean

kontratutako kideak. Atal honetan aipatutako kolektiboak ez dira zenbatuko gutxieneko taldearen osaera zehaztean, eta ez dira kontuan hartuko ere adjudikatutako kopurua kalkulatzeko, finantzaketa lortuz gero.

2.3 Ikertzaile nagusiak baldintza hauek bete beharko ditu:

- i. Doktore izatea.
- ii. Lanaldi osoan edo parekoan aritzea.
- iii. 2.2.a edo 2.2.b. oinarrian aipatutako kolektibo batekoa izatea.
- iv. Gutxienez ikertzaile nagusietako batek kontratua izan beharko du UPV/EHUrekin, eta bere gain hartuko ditu proiektuaren kudeaketa instituzionalaren funtzioak (sinadura UPV/EHUren izenean, organikoak erabiltzea, etab.).

2.4. Ikertzaileak ezingo dira egon:

- a. Deialdi honetako eskatzaile den ikertalde batean baino gehiagotan. Hori gertatuz gero, ikertalde horietatik kanpo geldituko dira.
- b. EUSeko Ikertalde Finkatuentzako 2026-2029 laguntza deialdiko eskaera batean.

2.5. Ezin izango dute laguntzarik eskatu:

- a. Epai irmo bat medio dirulaguntza publikorik jaso ezin duten pertsonak.
- b. Dirulaguntzak itzultzeagatik betebeharrak egunean ez dituztenek.
- c. Ebazpen irmo bat medio dirulaguntzarik jaso ezin dutenek, lege honen edo beste batzuen arabera.

2.6. Ikertzaile nagusiak dagozkion baldintzak betetzen ez baditu, atzera botako da eskaera.

2.7. Ikertzaile nagusi kideak edo edozein taldekidek baldintzak betetzen ez baditu, ikertaldetik kanpo geldituko da.

### 3. OINARRIA: GUTXIENEO BALDINTZAK

3.1. Ikertaldeak hiru kide izango ditu **gutxienez**: 2.2 oinarriaren a, b edo c ataletan aipatutako kolektiboetako ikertzaile doktoreak. Gutxienez horietako bi izango dira a edo b ataletan aipatutako kolektiboetakoak, eta horietatik bat arduratuko da eskaera koordinatzeaz, eta ikertaldeko ikertzaile nagusia izango da. Gutxieneko taldeko hiru kideek UPV/EHUrekin kontratua edo lotura izaten jarraituko dute laguntzaren indarraldi osoan.

Ezin izango dira deialdi honetara aurkeztu sei doktore edo gehiago dituzten ikertaldeak, salbu eta EUSeko Ikertaldeentzako 2026-2029 deialdian parte hartzeko baldintzaren bat betetzen ez badute.

3.2. Ikertaldeek izan ahalko dute ikertzaile nagusi kide bat, lehenengoa ez dagoenean ikertzaile nagusi gisa arituko dena, eta 2.3 oinarriko baldintzak ere bete beharko ditu.

3.3 Ikertaldeak erakutsi beharko du harreman bat dagoela bere kideen artean, koherentzia bat dagoela taldean, **ibilbide komun** bat dutela eta batera aritu direla proiektu eta argitalpenetan. Zehazki, **GUTXIENEO EKOIZPEN** hau akreditatu beharko du **2020-2025** urteetan:

- a) **Argitalpen zientifiko bat doktore bakoitzeko**. Batera eginiko argitalpen zientifikoak behin bakarrik zenbatuko dira. Hala, argitalpen zientifikotzat hartuko dira liburuak, liburu kapituluak eta aldizkari zientifikoetako artikuluak, kontuan harturik arlo bakoitzaren berezitasunak. Hori horrela, informatikaren eta konputazioaren zientzien arloetan, aintzat hartuko dira azpiarlo honetan oro har onartzen diren izen handiko Nazioarteko Kongresuen aktak; aldiz, Arte Ederren arloetan, kontuan hartuko dira ANECAk aipatutako ohiko edo ezohiko ekarpenak.

Matematika, Fisika, Kimika, Biologia, Zientzia Biomedikoak, Natura Zientziak eta Ingeniaritza eta Arkitektura arloetako gutxieneko ekoizpena akreditatuko da soil-soilik artikuluen bidez, argitaratuak beren kategoria zientifikoari dagokion zerrendako aldizkarietan, Journal Citation Reports (JCR) Science Edition-en edo Scopus-en Scimago Journal Rank-en.

Gizarte eta Lege Zientzien eta Artea eta Giza Zientzien arloetan, gutxieneko ekoizpena akreditatuko da artikuluen, liburuen eta liburu kapituluaren bidez. Artikuluaren kasuan, kontuan hartuko dira soil-soilik, jada aipatutako Arte Ederren kasuan izan ezik, Web of Science-ren aldizkarietan (Arts and Humanities Citation Index, Social Science Citation Index, Science Citation Index, Journal Citation Reports eta Emerging Sources Citation Index), Scimago Journal Rank-en edo FECYT kalitate zigilua duten aldizkarietan argitaratutakoak. Liburu edo liburu kapitulu bidezko akreditazioa egingo da izen handiko argitaletxeetako argitalpenen bitartez. Liburuek eta liburu kapituluak estatuko edo nazioarteko argitaletxe entzutetsuetan argitaratuak izan beharko dute, eta ISBN zenbakia eduki beharko dute.

Taldearen koherentzia eta ibilbide komuna frogatzeko, taldeko bi kidek batera egin duten argitalpen zientifiko bat aurkeztu beharko da, halakotzat hartuko direlarik artikulua, liburuak edo liburu-kapituluak. Liburuetan kideetako bat editore gisa ageri bada eta beste kide batek kapitulu batean parte hartzen badu, baterako argitalpentzat hartuko dira.

Eskatzaileek "Ikerketa-taldeak" aplikazioan adierazi beharko dute zer argitalpen hartu behar den kontuan atal honetan eskatzen den gutxieneko baldintza egiaztatzeko.

b) **Defendatutako doktorego tesi bat.**

c) **Aktibo dagoen ikerketa proiektu bat, UPV/EHU haren zuzeneko onuraduna izanik.**

Proiektua izango da autonomia erkidegoko, estatuko edo nazioarteko lehiaketa bidezko deialdi publikoetan lortutakoa edo parekoak; zehazki, Europar Batasuneko, nazioarteko beste organismo edo erakunde batzuetako, estatu planetako, autonomia erkidegoetako edo UPV/EHUko lehiaketa bidezko programetan lortutakoa. Ezinbestekoa izango da deialdi horietan kanpo ebaluazio bat egin izana, ikerketa ebaluatzeko agentzia ofizial eta independente baten eskutik. Ez dira kontuan hartuko programa eta proiektu hauei loturiko deialdiak: prestakuntza edo hezkuntza programak, hezkuntza berrikuntzarako proiektuak edo antzekoak, mugikortasun programak edo biltzar zientifikoak antolatzea helburu duten proiektuak. Lehia prozedura batean dirulaguntzak banatzeko, aurkeztu diren eskabideak alderatzen dira, erlazio bat ezartzeko horien artean, aintzat harturik deialdiaren oinarrietan ezarritako balorazio irizpideak, eta dirulaguntzak adjudikatzen zaizkie, erabilgarri dagoen kredituaren barruan eta deialdian ezarritako mugarekin, irizpide horiek aplikatuta baloraziorik handiena lortu dutenei.

Taldearen koherentzia eta ibilbide komuna frogatzeko, 2020–2025 aldirian dagoen ikerketa proiektu lehiakor bat aurkeztu beharko da, gutxienez talde eskatzaileko bi kideren parte hartzea duena.

Eskatzaileek "Ikerketa-taldeak" aplikazioan adierazi beharko dute zer proiektu hartu behar den kontuan atal honetan eskatzen den gutxieneko baldintza egiaztatzeko.

3.4. **TALDE EMERGENTEEN** kasuan, aztertu egingo da salbuetsi daitezkeen aurreko puntuan aipatutako **ibilbide komuna** egiaztatetik (gutxieneko ekoizpenaren betebeharra mantenduta), hiru goera hauetakoren batean daudenean:

- a. Ikertalde aitorturik ez duten sail edo arlo tematikoetako ikertaldeak direnean, sortu berriak edo sortzeko prozesuan daudenak.
- b. Ikertaldeak aurkeztutako proposamenean, ikertzaile nagusi gisa proposatutako pertsonak finantzaketarik lortu ez dutenean, ez EUSeko ikertalde finkatuentzako ez UPV/EHUko ikertaldeentzako deialdietan, eta, gainera, gutxienez taldekide gisa

proposatutako enbdiel parte hartu ez dutenean deialdi horietako batean aitortutako ikertalde en proposamenetan.

- c. Hainbat esparrutako ikertaldeetatik abiatuta sortu diren taldeak direnean, eta bat egin dutenean eginkizun komun bati begira, diziplinarreko/diziplinaz gairdiko ikuspegi batekin.

Egoera horietakoren batean egonik laguntza eskatu nahi duten ikertaldeen idazki bat bidali beharko dute Ikerketa Errektorereordetzara, deialdia aurre-argitaratu eta hurrengo 7 egun baliodunetan ([gruposinvestigacion.dgi@ehu.eus](mailto:gruposinvestigacion.dgi@ehu.eus)), ikertzaile nagusiak sinatuta, ikertalde emergentzetat har ditzaten argudioak azalduta. Gainera, idazkian aipatuko da nortzuk izango diren gainerako taldekideak, eta proposatutako ikerketa lerroa edo lerroak azalduko dira gaingiroki. Hala eskatzen bazaio, eskaeraren koordinatzaileak dagozkion argibideak eman beharko ditu aurretik aipatu diren betekizunak betetzen direla akreditatzeko.

#### **4. OINARRIA. IKERTALDEENTZAKO LAGUNTZEN EZAUGARRIAK**

4.1. Laguntzen helburua da ikertaldeen laguntzea oinarritzko funtzionamendu gastuei aurre egiten, UPV/EHUtik kanpoko erakundeetatik ikerlanerako lor dezaketen finantzaketaren osagarri gisa.

4.2. Laguntzak izango dira 4 urterako programatu den ikerlanerako, eta bat etorriko dira Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planarekin (Euskadi 2030) eta Europa 2030 Estrategiarekin. Programan zehaztuko dira garatu beharreko ikerketa illoak, produktibitate konpromisoa eta planteatutako beharrei erantzuteko dirulaguntzen plana.

4.3. IGBBek proposatuko du zenbat laguntza eman eta zer kopurutakoak, kontuan hartuta eskaera kopurua, aurkeztutako aurrekontuak eta ikertalde en balorazioa. Ikertaldeen atzera egiten bada edo desegin egiten bada finantzatutako aldia amaitu aurretik, gastatu ez duen laguntza kenduko zaio, eta bertan behera geldituko dira ikertaldeer laguntza emateko erabakian ondorengo urteetarako zehaztutako kopuruak.

#### **5. OINARRIA. IKERTALDEENTZAKO LAGUNTZEN IZAERA**

5.1. Zeregin hauetarako eskatu ahal izango da laguntza:

- a. Ikertzaileak kontratatzeeko laguntzak edo beste deialdi batzuetatik datozen ikertzaileak kofinantzatzekoak. Kontratazioa egingo da UPV/EHUren kontratazio araubidearen arabera. Ez dira onartuko administrazio lanak egiteko langileak kontratatzeeko gastuak.
- b. Azpiegitura zientifikoa erosteko, UPV/EHUk ezarritako prozeduren bitartez. Araudia betetzen ez bada, emandako laguntza txikitu ahal izango zaio taldeari, eginiko erosketaren zenbateko berean. Ekipamendu informatikoa erostea soil-soilik onartuko da justifikatuta dagoenean, ikerketarako behar diren beste ekipamendu batzuetarako ezinbesteko laguntza gisa, edo ikerketa arloaren espezifikotasunak hala eskatzen duenean, eta ezin izango da laguntza erabili ohiko ekipamendu informatikoa erosteko.

Dirulaguntzaren indarraldiaren azken 6 hilabeteetan, ekipamendu zientifikoa erosi ahal izango da soil-soilik prezazko arrazoiengatik, eskaeran aurreikusi ezin izan diren arrazoiengatik (adibidez, tresneria haustea). Eskaera espresuki eta zientifikoki justifikatu beharko da, eta Ikerketa Errektorereordetzak onartu beharko du.

- c. Material suntsikorra.
- d. Bidaiak eta dietak, barne harturik ikerlanarekin zuzenean lotutako era guztietako joan-etorrien gastuak, kongresuetara bertaratzearenak (eta izen-emateak) eta beste ikergune batzuetako egonaldi laburrek eragindakoak, aintzat harturik beti gastua egiteko unean indarrean dagoen zerbitzu ordainen arloko erabakian finkatutako

kopuruak.

- e. Laguntzaren xede diren lanak azpikontratatzeko gastuak, emandako laguntzaren zenbateko osoaren %25era arte. Kopurua handitu ahal izango da, behar bezala justifikatutako kasuetan eta dagokion eskaera arrazoitua egin ondoren.
- f. Beste gastu batzuk, aurreko partidetan aipatu gabeko kontzeptuei dagozkienak, egoki justifikatuta. Sartu ahal izango dira ere ekipamendu zientifikoa konpontzeko eta mantentzeko gastuak, baldin eta aurreikusi ez badira UPV/EHUko Zerbitzu Nagusiak eginiko mantentze kontratuetan.

5.2. Soil-soilik egotziko zaizkio ikertaldeari laguntzaren indarraldian eginiko gastuak (emakidaren erabakian aipatutako indarraldia). Egin beharreko gastua ez badago aurreko ataletan aipatu diren gastu moten artean, baimena eskatu beharko zaio Ikerketaren Gestioko Zuzendaritzari (aurrerantzean, IGZ), eta gastuaren justifikazio zientifiko-teknikoa aurkeztu beharko da, zuzendaritza horrek azter dezan. Eskaera egingo da behar besteko denboraz, baliozkotu ahal izateko. Soilik IGZren baimenarekin egin ahal izango da gastu hori.

**Ez da diruz lagunduko** lan planean aipatutako jarduera zehatz bati zientifikoki lotuta ez dagoen **bulego materialaren** erosketarik, ez eta  **ekipamendu informatiko arruntaren** erosketarik ere.

Diruz lagundu ezin daitekeen gastu bat jarduera planean edo aurrekontuan sartzeak **ez du behartuko gastu hori onartzera.**

Diruz lagundu ezin daitekeen edozein gastu IGZren baimenik gabe sartzen bada, atzera botako du zuzendaritza horrek, eta organikoari lotutako erantzukizunak eskatu ahal izango zaizkio ikertzaile nagusiari.

## 6. OINARRIA. ESKAERAK AURKEZTEKO MODUA ETA EPEA

6.1. Laguntza eskatzeko epea **2026ko apirilaren 8an hasiko da eta 2026ko apirilaren 27ra arte egongo da zabalik.**

6.2. Ikertaldeek telematikoki beteko dute eskaera inprimakia hurrengo estekan: <https://ikerketa-taldeak.net/giu>. Ikertaldeko ikertzaile nagusiak alta hartuko du erabiltzaile gisa, eta aplikazioan zehaztutako urratsak egingo ditu.

6.3. Ikertzaile nagusiek informazio hau sartuko dute aplikazioan:

a) ***Ikertaldearen datu nagusiak***: izena, arloa, ikerketa lerroak, hitz gakoak... aplikazioko atalen arabera.

b) ***Ikertzaile nagusia(h), taldekideak eta merezimenduak***: UPV/EHUk aurrekarga bat egingo du ofizioz aplikazioan, deialdian onartzen diren pertsonen eskaeren harira, deialdi honetako 2. oinarrian ezarritako irizpideen arabera. Ikertzaile nagusiak ikertalderako nahi dituen ikertzaileak gehituko ditu, NANA sartuta, eta automatikoki aurrekargatuko dira aztergai den aldiko (2020-2025) haien merezimenduak, deialdiaren 1. eranskinen ezarritako irizpideen arabera. Pertsona bat onargarriz hartzen ez bada haren NANA aplikazioan sartzean (betiere 2. oinarriko baldintzak betetzen baditu eta Eusko Jaurlaritzaren ikertaldearen deialdian irekitako eskaera baten parte ez bada), ikertzaile nagusiak email bat bidaliko du [gruposinvestigacion.dgi@ehu.eus](mailto:gruposinvestigacion.dgi@ehu.eus) helbidera, pertsona hori taldean sartzeko aukera azter dadin eta, hala badagokio, IGZko langileek hori ofizioz egin dezaten.

Ikertzaile nagusiak hautatu eta identifikatuko ditu deialdiaren 3. oinarriko gutxieneko baldintzak betetzeko behar diren merezimenduak. Gainera, beste merezimendu batzuk ere hautatu ahal izango ditu, ebaluatuko den eskaeran, 7. oinarrian ebaluazio irizpide bakoitzari ezarritako mugekin.

Akatsik aurkitzen bada aurrekargatutako merezimenduetan, ikertzaile nagusiak oharrak idatzi ahal izango ditu aplikazioak horretarako duen eremuan. Ez da erregistro berri bat sortu behar.

Ofizioz aurrekargatu ez diren merezimenduak akreditatu nahi izanez gero, betiere 2020-2025 urteetakoak badira, ikertzaile nagusiak aplikazioan gehitu ahal izango ditu, dagozkion egiaztagiriak erantsita, UPV/EHUtik kanpokoak badira. Aurrekargatu ez den merezimendua UPV/EHUkoa bada, ez da erantsi beharko egiaztagiririk, eta IGZko kideek berrikusiko dute, ofizioz.

Bai aurrekargatutako merezimenduei buruzko iruzkinak, bai ikertzaileek gehitutako merezimenduak, IGZko teknikariek aztertuko dituzte, onartutako eta baztertutako eskaeren behin-behineko zerrenda argitaratu aurretik, eta adieraziko dute onartzen diren ala ez eskatutako aldaketak edo sartutako merezimendua.

Informazio horrekin guztiarekin, "Ikertaldearen Jardueraren Laburpena" sortuko da, oinarri gisa erabiliko dena taldearen ordura arteko lana ebaluatzeko.

c) **Jardueren programa**: laguntzaren indarraldian bete beharreko **helburuak** zehaztuta, bai eta **laneko plana, kronograma** eta **mugarri nagusiak** ere.

Taldearen helburuak, ekoizpen zientifikoari, prestakuntzari, transferentziari eta finantzaketa iturriei dagokienez, kuantifikatu egingo dira laguntzaren indarraldian lortu beharreko adierazleen bidez. Aurreikusitako jardueren jarraipena egingo da 17. oinarrian ezarritakoaren arabera.

d) Ikertaldeak proposatutako lanak egiteko **eskatzen den aurrekontua**: diruz lagundu daitekeen kontzeptu bakoitzean eskatutako kopuruak zehaztuko dira (ikus 5. oinarria). Gainera, kopuru horiek justifikatuko dira, zehatz-mehatz nola erabiliko diren azalduta. Eginiko gastuaren bilakaera aztertuko da 17. oinarrian ezarritakoaren arabera.

e) Ikertzaile nagusien **FECYTren curriculum laburra, PDF** formatuan eta **ingelesez**: eskatzaileak esteka honen bidez sartuko dira online editorera: <https://cvn.fecyt.es/editor/>. Aplikazio horri buruzko kontsulta teknikoak egiteko: [cau.editor.cvn@fecyt.es](mailto:cau.editor.cvn@fecyt.es).

6.4. Eskaera osorik bete ondoren, ikertzaile nagusiak **behin betiko dokumentua duen PDFa** sortuko du aplikazioaren bidez, eta **elektronikoki sinatu** beharko dute eskaera osatzen duten pertsona guztiek.

Dokumentu hori aurkeztuko da **eskaerak aurkezteko ezarritako epean**, UPV/EHUren egoitza elektronikoa erabilita (<https://egoitza.ehu.eus>), "Eskatzen du" atalean hautatuta "**EHU Taldeak 2026/2029 - I. modalitatea**", bai eta jomuga ere: "**Ikerketa Errektoreordetza – UPV/EHU Ikerketa Deialdiak (U02000256)**".

Izapide horretan erabili ahal izango da egoitza elektronikoa onartutako edozein identifikazio eta sinadura bitarteko; hala nola BakQ, NAN elektronikoa edo Diruaren eta Zerga Ziguaren Fabrika Nazionalaren (FNMT-CERES) ziurtagiria. Izenperen hodeiko ziurtagiri profesionalarekin sartzeko, "Ziurtagiri digitalak" aukeraren bidez, instalatuta eduki behar da profesionalen txartel birtuala, eta saioa hasi behar da.

Eskaera **soil-soilik** hatuko da aurkeztutzat **elektronikoki erregistratzen** denean.

6.4. Eskaera ahal dela ingelesez aurkeztuko da, nahiz eta EAEko bi hizkuntza ofizialetako edozein ere erabili ahal izango den (euskara edo gaztelania).

Ahal bada, ebaluazioa egingo da eskaera aurkeztu den hizkuntzan. Ebaluazioa euskaraz egiterik ez badago, hizkuntza hori dakien ebaluatzaile espezialistatik ez egoteagatik, Ikerketa Errektoreordetzak ingeles edo gaztelaniazko itzulpena eskatuko du. Itzulpena jaso ostean, email bidez bidaliko zaio ikertzaile nagusiari, eskaeran adierazitako helbide elektronikora. Ikertzaile nagusiak **bost egun natural** izango ditu itzulpena gainbegiratu eta onartzeko. Epe hori zenbatzen hasteko, kontuan hartuko da mezu elektronikoa entregatu izanaren

egiaztagiria. Adierazitako epea igarota erantzunik egon ez bada, ikertzaile nagusia itzulpenarekin ados dagoela ulertuko da.

## 7. OINARRIA. EBALUAZIO PROZESUA

Eskaerak ebaluatuko ditu Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziak (Unibasq) edo antzeko beste agentzia batek, eta ikerketa arlo bakoitzeko espezialistek egingo dute ebaluazioa.

Aztergai izango den denbora tarte 2020-2025 izango da beti, ondorengo irizpide eta mugen arabera:

1. irizpidea: Aurreko ikertaldeak eginiko ikerketa zientifikoaren kalitatea. Baloratuko dira ekoizpen zientifikoaren bikaintasun maila eta produktibitatea, taldearen tamainaren eta lortutako baliabideen arabera. Kontuan izango dira argitalpenak (liburuak, liburu kapituluak, berrikuspenak, ebaluatutako argitalpen elektronikoak eta aldizkari zientifikoetako artikulak), biltzar zientifikoetan eginiko ekarpenak edo zientzia arlo bakoitzean garrantzitsua den beste edozein adierazle.

Argitalpenen eta gainerako ikerketa emaitzen balorazioa egingo da kualitatiboki ebaluatuta taldearen ikerketa lerroekiko duten garrantzia, originaltasuna eta koherentzia. Zerrendak, ranking zientifikoak eta aipuen adierazleak erabiliko dira soil-soilik testuinguru informazio gisa, eta ez dira automatikoki edo konparatiboki aplikatuko esparru zientifiko desberdinen artean.

Gainera, baloratu ahal izango dira ere arlo bakoitzeko beste emaitza garrantzitsu batzuk: hala nola erakusketak, katalogoak, datu multzoak, softwarea, garapen metodologikoak, azpiegitura zientifikoak, estandarrei eginiko ekarpenak, inpaktu publiko edo sozialeko txostenak, eta zientzia irekiaren praktikek aitortutako beste produktu batzuk.

Gehienez ere hautatuko dira:

- 20 argitalpen (liburuak, liburu kapituluak, berrikuspenak, ebaluatutako argitalpen elektronikoak eta aldizkari zientifikoetako artikulak), gutxienezko baldintza betetzeko balio dutenak barne.
- Biltzar zientifikoetan eginiko 5 ekarpen, edo zientzia arlo bakoitzean garrantzitsua den beste edozein adierazle.

Irizpide honek % 34ko pisua izango du guztizko puntuazioan.

3.4. oinarrian aipatutako egoeraren batean dauden talde emergenteen kasuan, irizpide honen pisua izango da % 29.

2. irizpidea: Aurreko ikertaldeko ikertzaileak trebatzeko gaitasuna. Baloratuko dira doktorego aurreko eta ondoko kontratatutako pertsona kopurua, tesiak eta nazioarteko tesiak, graduondokoak eta masterrak (ikertaldeko pertsonen zuzendutakoak), edo ikertaldearen ikerketa lerroekin zerikusia duten doktoregoak. Ebaluazioak kontuan izango du, prestakuntza jardueraren bolumena ez ezik, kalitatea ere, alderdi hauei dagokienez: gainbegiratze arduratsuko jardunbideak, tesien eta master amaierako lanen baterako zuzendaritza, ikerketaren etikari eta osotasunari buruzko prestakuntza, eta askotariko ikerketa ibilbideei emandako laguntza, bereziki ikerketa karreraren hasierako etapetan.

Gehienez ere hautatuko dira:

- 3 doktorego tesi (defendatuak), gutxienezko baldintza betetzeko balio duena barne.
- 8 kontratu, doktorego aurreko eta ondoko ikertzaileak eta kanpoko finantzaketarekin kontratatutakoak barne.
- 2 parte-hartze master/doktorego programetan.

Irizpide honek %15ko pisua izango du guztizko puntuazioan. 3.4. oinarrian aipatutako egoeraren batean dauden talde emergenteen kasuan, irizpide honen pisua izango da % 13.

3. irizpidea: Aurreko ikertaldeak ikerketarako eta jakintzaren transferentziarako lortutako finantzaketa. Baloratuko dira:

- 1) Lortutako finantzaketa eta zenbatekoa, kontuan harturik bereziki proiektuen lidergoa eta deialdien izaera lehiakorra.
- 2) Jakintza transferitzeko ekintzak, administrazio publikoekin edo enpresekin eginiko ikerketa kontratuen edo hitzarmenen bidez, eta jakintza transferitzeko hitzarmenen bitartez, bideratuak ikerketa kudeatzeko bulegoen bidez, edo unibertsitate, institutu eta ikerguneetako antzeko organoen bitartez.
- 3) Ikertaldearen ikerketa emaitzak, honako hauen bidez neurtuak: patente eskaerak, erabilgarritasun ereduak, know-how konfidentziala eta ikerketa emaitzekin lotutako spin-offen sorkuntza. Irizpide honen barruan dago patenteen ustiapen maila.
- 4) Dibulgazio zientifikoko eta ikerketaren hedapen sozialerako jarduerak, publiko orokorrari zein komunitate zientifikoari begira, bereziki euskaraz eginikoak.

Puntu honetan ez dira kontuan hartuko txostenak, aholkularitzak, arkitekturako edo ingeniariatzako oinarritzko proiektuak, etab., baldin eta ezagutzan hobekuntza nabarmenik egin

Gehienez ere hautatuko dira:

- 8 proiektu, kontratu edo hitzarmen.
- 2 patente, erabilgarritasun eredu edo know-how.
- Dibulgazio zientifikoko eta ikerketaren hedapen sozialerako 3 jarduera.

ez badute beren alorrean.

Irizpide honek % 20ko pisua izango du guztizko puntuazioan. 3.4. oinarriaren a eta b ataletan aipatutako egoeraren batean dauden talde emergenteen kasuan, irizpide honen pisua izango da % 17.

4. irizpidea: Eskaera egin duen ikertaldearen helburuak eta laneko plana. Baloratuko dira:

- 1) Ikertaldearen helburuak: helburuen definizioaren zehaztasuna, kalitate zientifikoa eta berrikuntza maila, bai eta proposatutako laneko planarekin duten koherentzia ere.
- 2) Laneko plana: laneko planaren definizioa eta logika, eta haren bideragarritasuna, kontuan izanik taldekideen esperientzia.
- 3) Kudeaketa planean alternatibarik proposatu den ustekabeko emaitzetarako eta aurreikusitako nahiz aurreikusi gabeko beste egoera batzuetarako.
- 4) Eskatutako aurrekontua proposatutako helburuetara egokitzen den, eta bideragarria den, bai eta lortu nahi diren emaitzen garrantzia eta inpaktu sozioekonomikoa eta teknologikoa ere.
- 5) Ikerketa arduratsuko jardunbideak sartu diren: hala nola zientzia irekia, datuen kudeaketa etikoa eta arduratsua, ikerketaren gizarte eta ingurumen inpaktuei buruzko gogoeta, eta ikuspegi errealistak eta moldagarriak hartzea ziurgabetasunaren eta aurreikusi gabeko emaitzen aurrean.

Irizpide honek % 17ko pisua izango du guztizko puntuazioan. 3.4. oinarriaren a eta b ataletan aipatutako egoeraren batean dauden talde emergenteen kasuan, irizpide honen pisua izango da % 22.

5. irizpidea: Eskaera egin duen ikertaldearen kudeaketa proposamenaren ebaluazioa. Baloratuko dira:

- 1) Ikertaldearen osaera, egitura, diziplinartekotasuna eta koherentzia, proposatutako helburuei dagokienez.
- 2) Emaitzen dibulgazio zientifikoa, publikoaren eskura jartzeko, ikertaldearen lanaren komunikazio, hedapen edo didaktika programa edo ekintzen bitartez.

Irizpide honek % 8ko pisua izango du guztizko puntuazioan. 3.4. oinarriaren a eta b ataletan aipatutako egoeraren batean dauden talde emergenteen kasuan, irizpide honen pisua izango da % 13.

6. irizpidea: Irizpide gehigarriak. Baloratuko dira:

- 1) Emakumeen presentzia: puntu bat emango zaie taldekideen % 40 edo gehiago emakumeak dituzten taldeei; 0,5 puntu, ehuneko hori % 30ekoa edo handiagoa eta % 40tik beherakoa denean. Atal honetan ez da punturik lortuko ehuneko hori % 30era iristen ez denean.  
Gainera, puntu gehigarri bat emango da taldeko ikertzaile nagusi bakarra emakumea denean, edo ikertzaile nagusia eta ikertzaile nagusi kidea emakumeak direnean. Ikertzaile nagusi bat gizonezkoa eta bestea emakumezkoa direnean, 0,5 puntu emango dira.
- 2) Proposamena bat etortzea Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GJH): gehienez puntu bat emango zaie 2030 Agendaren GJHetako batekin bat datozen proposamenei.
- 3) Bultzada ikertalde emergenteei: 2 puntu emango zaizkie 3.4. oinarriaren a. eta b. ataletan aipatutako egoeraren batean dauden taldeen proposamenei.
- 4) Ikertaldearen beste ekarpen eta jarduera zientifiko garrantzitsu batzuk, aurreko ataletan aipatu ez direnak, honako hauei eginiko ekarpenak barne: ikerketa kultura, integritate zientifikoa, ebaluazio metodoen berrikuntza, zientzia irekia, erakundeen arteko lankidetzak eta ebaluazio paneletan edo agentzietan parte hartzea. Puntu bat emango da gehienez.

---

**II. MODALITATEA: IKERTALDEENTZAKO LAGUNTZAK, EUSEKO IKERTALDE FINKATUENTZAKO 2026-2029 DEIALDIAN PARTE HARTU ARREN (ZIENTZIA, UNIBERTSITATE ETA BERRIKUNTZAKO SAILBURUAREN 2025EKO IRAILAREN 2KO AGINDUA), AITORTZARIK JASO EZ DUTENAK EDO, AITORTZA JASO ARREN, FINANTZAKETARIK LORTU EZ DUTENAK.****8. OINARRIA. XEDEA**

Modalitate honen xedea da laguntza ekonomikoak ematea ikertaldee; zehazki, EUSeko Ikertalde Finkatuentzako 2026-2029 deialdian parte hartu arren (Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuaren 2025eko irailaren 2ko Agindua), aitortzarik jaso ez dutenak edo, aitortza jaso arren, finantzaketarik lortu ez dutenak.

Deialdiaren modalitate honen helburua da ikertaldee eman beharreko dirulaguntza aitortzea eta, hala badagokio, adjudikatzea, eskaeran azaldutako jarduera programa bete dezaten.

Dirulaguntza jasoko duten ikertaldeak hartuko dira UPV/EHUko ikertaldetzat, ondorio guztietarako.

**9. OINARRIA. IKERTALDEEN EZAUGARRIAK ETA KIDEAK**

9.1. Ikertalde bat modalitate honetan onargarri izateko, ezinbestekoa izango da EUSeko Ikertalde Finkatuentzako 2026-2029 deialdian aurkeztu izana (Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza sailburuaren 2025eko irailaren 2ko Agindua).

9.2. Deialdiaren modalitate honetan parte hartuko duten ikertaldeen ezaugarriak eta taldekideek bete beharreko baldintzak izango dira 1. modalitatean ezarritako berberak. Alde horretatik:

- a. Taldekide guztiek UPV/EHUko kide izan beharko dute, deialdiaren 2. oinarrian ezarritako baldintzetan. UPV/EHUrekin loturarik ez duten kideak taldetik kanpo geldituko dira.
- b. Gutxienez taldeko ikertzaile nagusi batek deialdiaren 2.3. oinarriko baldintzak bete beharko ditu.

9.3. Ezin izango dira deialdi honetako laguntzen eskatzaile izan 2.4 oinarrian aipatutako egoeraren batean dauden pertsonak.

**10. OINARRIA. LAGUNTZEN EZAUGARRIAK ETA IZAERA**

Laguntzen ezaugarriak eta izaera izango dira deialdi honen I. modalitaterako 4. eta 5. oinarrietan, hurrenez hurren, aipatutakoak.

**11. OINARRIA. ESKAERAK FORMALIZATZEA**

Ikerketa Errektoreordetzak ofizios aztertuko du EUSeko Ikertalde Finkatuentzako deialdiaren ebazpena, eta identifikatuko ditu deialdian aitortzarik jaso ez duten ikertaleak edo, jaso arren, modalitate honetan sartzeko finantzaketarik lortu ez dutenak.

**12. OINARRIA. ESKAERAK EBALUATZEKO IRIZPIDEAK**

Ikertaldeen modalitate honetan parte hartzeko, ezinbestekoa izango da EUSeko Ikertalde Finkatuentzako 2026-2029 deialdian aurkeztu izana. Beraz, deialdi horretan eginiko ebaluazioaren emaitza erabiliko da.

Lortutako ebaluazioaren emaitzak bat etorri beharko du EUSeko Ikertalde Finkatuentzako 2021eko deialdian parte hartu zuten eta eskaera honetan ere jarraitzen duten taldekideen kopuruarekin; hau da, deialdiaren 9. oinarrian ezarritakoa betetzen dutenekin.

Ebaluazioa lortzerik izan ez bada, Ikerketa Errektoreordetza arduratuko da ebaluazioaz, 7. oinarrian ezarritako baldintzetan, Eusko Jaurlaritzaren deialdira aurkeztutako eskaeran jasotako informazioa erabilia.

## **ALDERDI KOMUNAK:**

### **13. OINARRIA. LAGUNTZAK KUDEATZEKO ORGANOKAK**

Ikerketa Errektoreordetzak kudeatuko ditu deialdi honetako laguntzak, IGZren bidez.

### **14. OINARRIA. ESKAERAK IZAPIDETZEA ETA EBALUATZEA**

#### **14.1. I. modalitatearen eskaerak**

Eskaerak aurkezteko epea amaitzean, Ikerketa Errektoreordetzako IGZk aztertuko ditu eskaerak. Aztertuko dira ikertzaileek Ikerketa Errektoreordetzak aurrekargatutako merezimenduei eginko iruzkinak, bai eta 6.3 oinarriaren arabera gehitutako merezimendu berriak ere.

Azterketa hori amaitzean, Ikerketa Errektoreordetzak bere webgunean argitaratuko du ebaluazio faserako onartu eta baztertu diren eskaeren zerrenda, eta 10 egun balioduneko epea emango du, interesdunek eskaera osatu edo zuzentzeko, eta egokitzen jotzen dituzten alegazioak aurkezteko.

Zuzenketa eta alegazioak aurkeztuko dira 6. oinarrian eskaerak aurkezteko aipatu diren bitartekoen bidez, "Eskatzen du" atalean hautatuta "EHU Taldeak 2026/2029 - I. modalitatea".

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda argitaratuko da, Ikerketa Errektoreordetzaren webgunean. Forman eta epean eskaera zuzendu ez duten eskatzaileek atzera egin dutela ulertuko da.

Zuzenketa izapidea amaitzean, ikertzaile nagusiak "Eskaera osoa" dokumentua eskuratu ahal izango du aplikazioan. Dokumentu horrek jasoko ditu ikertaldeak akreditatutako merezimendu guztiak, eta oinarri gisa erabiliko da eskaeren ebaluazioan.

7. oinarriko ebaluazio irizpideen balorazioa egingo du UNIBASQ – Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziak edo antzeko ezaugarriak dituen beste agentziaren batek. Ebaluazio faseak hiru hilabete iraungo du gutxienez.

#### **14.2. II. modalitatearen eskaerak**

Kasu honetan, eskaerak izapidetzeko eta ebaluatzeko prozedura hasiko da EUSeko Ikertaldeentzako Eusko Jaurlaritzaren 2026-2029 deialdiaren ebazpena argitaratu ondoren, eta 12. oinarrian ezarritako baldintzak hartuko dira kontuan.

Ikerketa Errektoreordetzako IGZk aztertuko du EUSeko ikertalde finkatuentzako laguntzen deialdira aurkeztu zen taldearen osaera, 9. oinarrian ezarritako irizpideen arabera.

Gero, Ikerketa Errektoreordetzak bere webgunean argitaratuko du onartutako eta baztertutako eskaeren zerrenda, deialdi honetarako taldearen osaeran onartutako aldaketak zehaztuta, 9. oinarrian aipatutako baldintzak betez, hala badagokio. Ikertzaile nagusiek hamar egun baliodun izango dituzte alegazioak aurkezteko, eta 6.3 oinarrian aipatutako bitarteko berberak erabiliko dituzte horretarako, "Eskatzen du" atalean hautatuta "EHU Taldeak 2026/2029 - II. modalitatea erreferentzia.

Aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, onartutakoan eta baztertutakoan behin betiko zerrenda argitaratuko da, Ikerketa Errektoreordetzaren webgunean.

14.3. Bi modalitateetako eskaerretarako eginiko ebaluazio txostenak bidaliko dira IGBBra, eta honek adjudikazio proposamena helaraziko dio Ikerketa errektoreordeari, behin-behineko erabakia hartu eta argitara dezan.

14.4. **Emaitzen kalitate eta ebaluazio adierazleak.** IGBBek ezarriko ditu emaitzen kalitate eta ebaluazio adierazle batzuk, laguntzaren indarraldian dagozkien epeetan, eskaeran adierazitakoan oinarrituta. Zehazki: ekoizpen zientifikoari, prestakuntza gaitasunari, langileak erakartzeari eta funtsak eskuratzeari buruzko adierazle sail bat.

Zenbakitan zehazteko, batzordeak abiapuntu hartuko ditu taldeak berak hurrengo lau urteetarako eginiko jarduera planeko adierazleak, bai eta aurreko urteetan erakutsitako potentziala eta deialdi honen erabakian jasotako finantzaketa ere. IGBBek, hala badagokio, txostenak eskatu ahal izango dizkie ikertaldearen espezializazio arloan adituak diren eta ebaluazio esperientzia duten ikertzaileei.

Nolanahi ere den, erabaki hori hartzeko, kontuan hartuko da taldeak osatuko dituzten kideen amaierako kopurua.

Amaierako adierazleak sartuko dira laguntza onartzeko dokumentuan, eta erabiliko dira bi modalitateetan finantzatutako ikertaldearen lanaren jarraipenari buruzko 17. oinarrian aipatzen diren txosten teknikoak ebaluatzeko.

## 15. OINARRIA. ERABAKIA

15.1. IGBBek behin-behineko erabaki proposamena egingo du, eta Ikerketa Errektoreordetzaren webgunean argitaratuko da, eskaera guztiek lortutako behin-behineko puntuazioa zehaztuta.

15.2. Ikertzaile nagusiek 10 egun baliadun izango dituzte alegazioak aurkezteko, behin-behineko erabakia argitaratzen denetik. Horretarako, ebaluazio txostena eskuratu ahal izango dute, eskaera egiteko erabili den aplikazioaren bidez.

15.3. Finantzatu nahi diren taldeetako ikertzaile nagusiek erabaki proposamen individualaren jakinarazpena jasoko dute, erregistro bidez (eskaera erregistratu zuten espediente bera erabiliz). Proposamen horretan jasoko dira:

- a. Eskaera egin duen ikertaldearen izena.
- b. Esleitutako kopurua eta xehetasunak (kontzeptuen eta urterokoen arabera).
- c. Emaitzen kalitate eta ebaluazio adierazleak. Ikerketa Errektoreordetzak aldatu ahal izango ditu eskaeran ezarritako betebeharrak, taldearen proiektio/gaitasunaren arabera eta, hala badagokio, egin beharreko langile doikuntzen arabera.

Ikertzaile nagusiek partiden arabeko banaketa beteko dute, eta sinatuta itzuliko dute, aurreko puntuan aipatutako erregistroaren bidez, gehienez ere 10 eguneko epean, kontatzen hasita jakinarazpena egiten denetik. Dokumentu hau sinatzeak berekin ekarriko du kalitate adierazleak onartzea, taldeak bete egin beharko dituen, 17. oinarrian ezarritakoaren arabera. Halaber, ikertzaile nagusiek alegazioak aurkeztu ahal izango dizkiote erabaki proposamenari.

15.4. Ikerketa Errektoreordetzak IGBBri helaraziko dizkio jasotako alegazioak, azter ditzan eta behin betiko erabaki proposamena bidal diezaion Ikerketa errektoreordeari.

Behin betiko proposamenean talde berriren bat badago, behin-behinekoan ez zegoena, 15.1etik 15.3ra bitarteko oinarrietan adierazitakoa egingo da, ebazpen proposamen individual berriari dagokionez.

15.5. Behin aurreko izapideak eginda, Ikerketa Errektoreordetzaren webgunean argitaratuko da laguntza emateko edo ukatzeko behin betiko erabakia, eta argitalpen horrek jakinarazpen balioa izango du interesdunentzat.

15.6. Administrazio bidea amaituko duen behin betiko erabakiaren kontra, bide hauek erabili ahal izango dira, inoiz ez aldi berean:

1.- Aukerako berraztertze errekurtsua, erabakia eman duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, kontatzen hasita erabakia banan-banan jakinarazi eta hurrengo egunetik.

Administrazio errekurtsu hau jartzen bada, ezetsizat hartuko da hilabeteko epean espresuki ebazten ez bada, kontatzen hasita errekurtsua jarritako egunetik. Beraz, zabalik geldituko da hurrengo paragrafoko bide juridikzionala.

Rasu horretan, 6 hilabetekoa izango da administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzeko epea, zenbatzen hasita aukerako berraztertze errekurtsua presuntzioz ezesten den egunaren biharamunetik (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikulua).

2.- Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua, Bilboko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegietan, 2 hilabeteko epean, erabaki indibiduala jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8.3 eta 46. artikulua).

## 16. OINARRIA. LAGUNTZA ORDAINTEKO BALDINTZAK

Behin deialdiaren behin betiko erabakia argitaratuta, emandako laguntzak banatu aurretik, laguntza onartzeko agiria jaso beharko du Ikerketa Errektoreordetzako IGZk, ikertaldeko ikertzaile nagusiak sinatuta.

## 17. OINARRIA. JARRAIPENA

17.1. Ikerketa Errektoreordetzak bi txostenen bidez egingo du emandako laguntzen jarraipena, eta txosten horietan aztertuko dira bete beharreko kalitate adierazleen bilakaera eta ikertaldearen gastuaren gauzatzearen ehunekoa.

### 17.2. Tarteko txostena:

- **Bete beharreko kalitate adierazleak:** 2028ko lehen hiruhilekoan, Ikerketa Errektoreordetzak egingo du 2026 eta 2027 urterokoei dagokien taldeetako kideen merezimenduen aurrekarga (<http://www.ikerketa-taldeak.net> aplikazioaren bidez). Zehazki, aztertuko da konpromisoen dokumentuan jasotako atal hauen bilakaera: ekoizpen zientifikoa, prestakuntza gaitasuna, ikertzaileak taldean sartzea eta kanpoko finantzaketa iturriak lortzea.

Ikertzaile nagusiek 10 egun baliodun izango dituzte aurrekargatutako merezimenduei oharra egiteko edo merezimendu berriak sartzeko, kontuan har daitezten.

Ikerketa Errektoreordetzak, dokumentazio hori aztertu eta gero, amaierako tarteko txostena egingo du, ordura arteko adierazleen betetze ehunekoa finkatuz, eta ikertzaile nagusiari helaraziko dio. Aztertutako 4 atalen guttizkoan (ekoizpen zientifikoa, prestakuntza gaitasuna, ikertzaileak taldean sartzea eta kanpoko finantzaketa iturriak lortzea) % 40ko betetze tasa lortzen ez duten taldeei murriztu ahal izango zaie 2028 eta 2029 urterokoetarako finantzaketa, era proportzionalan ez-betetzearekiko.

- **Eginiko gastuaren ehunekoa:** 2027ko kontabilitate ekitaldia amaitzean, Ikerketa Errektoreordetzak aztertuko du ikertaldeek eginiko gastuaren bilakaera. Lehen bi

urterokoetan **gastuaren % 50 gauzatu** ez duten ikertaldeei txikitu ahal izango zaie 2028 eta 2029 urterokoetako finantzaketa, ez-betetzearen proportzioan. Deialdiaren 5. oinarriaren arabera onargarriak ez diren gastuak sartu direla ikusten bada, Ikerketa Errektoreordetzak erantzukizunak eskatuko dizkio ikertzaile nagusiari, eta zigorrak ezarri (hala nola hurrengo deialdietan parte hartzeko debekua).

### 17.3. Amaierako txostena.

- **Bete beharreko kalitate adierazleak:** laguntza erabiltzeko aldia amaitzean, Ikerketa Errektoreordetzak egingo du 2028 eta 2029 urterokoei dagokien taldeetako kideen merezimenduen aurrekarga (<http://www.ikerketa-taldeak.net> aplikazioaren bidez). Zehazki, aztertuko da konpromisoen dokumentuan jasotako atal hauen bilakaera: ekoizpen zientifikoa, prestakuntza gaitasuna, ikertzaileak taldean sartzea eta kanpoko finantzaketa iturriak lortzea.

Ikertzaile nagusiek 10 egun baliodun izango dituzte aurrekargatutako merezimenduei oharrak egiteko edo merezimendu berriak sartzeko, kontuan har daitezten.

Ikerketa Errektoreordetzak dokumentazio hori aztertu eta amaierako txostena egingo du, ikertaldearen 4 urterokoei buruzko informazioa jasota eta hitzartutako adierazleen betetze ehunekoa finkatuta. Aztertutako 4 atalen guztizkoan (ekoizpen zientifikoa, prestakuntza gaitasuna, ikertzaileak taldean sartzea eta kanpoko finantzaketa iturriak lortzea) % 50eko betetze tasara ez iristea ez-betetze larritzat hartuko da, eta emandako laguntza osorik itzultzea ekar dezake. Ez-betetze horrek, gainera, UPV/EHUren hurrengo deialdietan parte hartzeko debekua ekar dezake.

- **Eginiko gastuaren ehunekoa:** 2029ko kontabilitate ekitaldia amaitzean, Ikerketa Errektoreordetzak aztertuko du ikertaldeen eginiko gastuaren bilakaera. Deialdiaren 5. oinarriaren arabera onargarriak ez diren gastuak sartu direla ikusten bada, Ikerketa Errektoreordetzak erantzukizunak eskatuko dizkio ikertzaile nagusiari, eta zigorrak ezarri (hala nola hurrengo deialdietan parte hartzeko debekua).

Ikerketa Errektoreordetzak soberakinak erretiratuko ditu, eta ezin izango da eskatu horiek 2029/12/31tik aurrera erabiltzeko luzapenik.

17.4. Era deszentralizatuan eginiko gastuei dagokienez, faktura originalak artxibatuko dira ikertaldeko ikertzaile nagusiaren sailean edo institutuan, eta organo eskudunen eskura egongo dira, edozein egiaztapen egiteko (Ikerketa Errektoreordetza, UPV/EHUren Barne Kontroleko Zerbitzua, Kontrol Ekonomikoko Bulegoa eta Herri Kontuen Euskal Epaitegia). Dokumentu originalak galduz gero, ez da fotokopiarik onartuko.

## 18. OINARRIA. EMAITZAK ZABALTZEA ETA USTIATZEA

18.1. Ikerketaren emaitza guztietan (argitalpenak, patenteak, prototipoak edo erabilgarritasun ereduak), bai eta sortutako jakintza zabaltzeko eta ustiatzeko ekintza orotan ere (ponentziak, hitzaldiak, biltzarrak eta beste ekitaldi zientifiko batzuk), ikertzaileek jakinaraziko dute UPV/EHUko kide direla, eta unibertsitatearen irudi korporatiboa erabiliko dute, unibertsitateak ezarritako moduan.

18.2. Ikertzaileak zer erakundetakoak diren adierazteaz gain, ikerketa finantzatu duten erakundeen izena agertuko da eskerrak emateko atalean, espresuki aipatuta deialdi hau.

18.3. Ikerlanean lortzen bada jabetza intelektual edo industrialeko tituluen bidez babes daitekeen emaitzaren bat, kontuan izango da UPV/EHUren jabetza intelektual eta industrialaren araubidea.

18.4. Ahal bezain laster, gehienez ere argitalpenaren data ofizialetik hamabi hilabetera, ADDI biltegi instituzionalean argitaratu beharko da argitalpen seriatuetan edo aldizkakoetan argitaratzeko onartu diren edukien azken bertsioaren bertsio digitala. Nolanahi ere, gomendatzen da ADDIn argitaratzea taldearen ikerketatik sortutako edozein emaitza.

## **19. OINARRIA. LAGUNTZAREN BALDINTZAK ALDATZEA**

19.1. Dirulaguntza emateko baldintzak aldatzen badira, betiere laguntzaren xedea betetzat hartuta, edo beste erakunde publiko edo pribatuetatik beste dirulaguntza batzuk jasotzen badira, aldatu egingo da laguntzak emateko erabakia, eta dagokion likidazioa egingo da. Kasu horietan, dagokion administrazio prozedura bideratu ondoren egingo da, aintzat harturik 698/1991 Dekretuaren 4. artikulua [abenduarien 17koa, EAEko Aurrekontu Orokorren kargura ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duena (1992ko otsailaren 7ko EHAA)], IGBBk proposatuta edo txostena egin ondoren, eta taldeko ikertzaile nagusiari jakinaraziko zaio.

19.2. Honako kasu hauetan, dirulaguntza emateko baldintzak aldatu direla ulertuko da:

- a. Taldearen barne lankidetzako harremani uko egitea, edo harreman horiek desagitea edo *de facto* haustea, edo taldeko ikertzaile nagusia UPV/EHU ez den beste erakunde batera edota EAetik kanpo lekualdatzea, eta horrek arriskuan jartzea taldearen zuzendaritza eta aurreikusitako helburuak betetzea.
- b. Ikertaldearen lana bat ez etortzea proposatutako helburuekin edo ezarritako epeekin, eta Ikerketa Errektoreordetzaren baimenik gabe egitea.
- c. Deialdi honen oinarriak, guztiak edo batzuk, modu larrian urratzea.
- d. Eskaearen datuak ezkutatu, aldatu edo moduren batera edo bestera manipulatzeko.
- e. Jarduera finantzatzeko deialdietan onartzen ez diren gastuak egitea edo UPV/EHUK kontratazio zentralizatuko ezarritako prozedurak bete gabe egitea.

## **20. OINARRIA. TALDEAREN OSAERA ALDATZEA**

20.1. Ikertaldearen osaera aldatu nahi bada, dagokion eskaera egin beharko zaio Ikerketa Errektoreordetzari, eta honek onartu ala ez erabakiko du. Ikertaldean ez da bajarik onartuko, ezinbestekoa denean izan ezik. Hori gertatuz gero, ikertaldearen aurrekontua aldatu ahal izango da, taldetik atera den pertsonari dagokion gastatu gabeko finantzaketaren zati alikuota kenduta.

Ikertzaile nagusiaren ardura izango da IGBBri jakinaraztea laguntzaren indarraldian UPV/EHU utziko duten taldekideen izenak.

20.2. Ikertaldeetako kideen aldaketen, alten eta bajen eragin data izango da Ikerketa Errektoreordetzak baimena emango duen data.

20.3. Taldekideen kopurua murrizteak berekin ekar dezake taldearen finantzaketa eguneratzea edo taldea bera desagitea.

## **21. OINARRIA. LAGUNTZEN HARTZAILEEN LEGEZKO ERANTZUKIZUNA**

Deialdi honetan jaso ez diren gai guztietan, kontuan hartuko da Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; besteak beste, dirulaguntzak itzultzeari buruzko xedapenak eta arau hausteei eta zigorrei buruzko araubidea.

Hori horrela, ulertuko da Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean aipatzen diren beste administrazio batzuetako organo zehatzen inguruko aurreikuspenak direla eskumen baliokideak (edo ahalik eta antzekoenak) dituen unibertsitateko organoarenak.

## **22. OINARRIA. IKERTALDEEK BETE BEHARREKO PRINTZIPIOAK**

22.1. Deialdi honen baitan egin nahi diren ikerlanetan erabili nahi badira gizakiak, haien lagin biologikoak edo datu pertsonalak, baldintza hauek bete beharko dira:

- Arlo honetako deklarazioetan jasotako printzipio etikoak errespetatzea (Belmont, 1979; CIOMS, 2002; Giza Genoma, UNESCO, 1997; Oviedoko Hitzarmena, 1999; eta Tokioko Adierazpena, 2004).
- Indarrean den araudia betetzea: 14/2007 Legea, Ikerketa Biomedikoari buruzkoa; 1716/2009 Errege Dekretua, Biobankuei buruzkoa; 41/2002 Legea, Pazientearen Autonomiari buruzkoa; 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa; eta 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena. Halaber, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko UPV/EHUren Arautegia.
- Gizakiekin, haien datuekin eta haien laginekin lotutako Ikerketetarako Etika Batzordearen (GIEB) nahitaezko aldeko txostena lortzea, aintzat harturik Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko erabakia, UPV/EHUko ikerketan eta irakaslanean etika organoak arautzeari buruzkoa (EHAA, 32 zk., 2014-02-17).

22.2. Deialdi honen baitan egin nahi diren ikerlanetan animaliekin esperimentatu nahi bada, baldintza hauek bete beharko dira:

- Nazioartean erabiltzen diren ordeztoko, murriztoko eta fintzeko irizpideak errespetatzea.
- Animaliekin eginiko ikerketaren arloko araudia betetzea (53/2013 ED).
- Animaliekin egiten den Esperimentaziorako Etika Batzordearen (AEEB) nahitaezko aldeko txostena lortzea, aintzat harturik Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko erabakia, UPV/EHUko ikerketan eta irakaslanean etika organoak arautzeari buruzkoa (EHAA, 32 zk., 2014-02-17).
- Agintari eskudunaren baimena lortzea (foru aldundien abeltzaintza sailak).

22.3. Deialdi honen baitan egin nahi diren ikerlanetan erabili nahi badira agente biologikoak edo genetikoki eraldatutako organismoak, baldintza hauek bete beharko dira:

- Prebentzio, zuhurtasun eta informazio printzipioak betetzea, giza osasuna, animalien osasuna eta ingurumena babesteari dagokionez.
- Arlo honetan indarrean den legedia betetzea: 31/1995 Legea, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa; 664/1997 Errege Dekretua, langileak agente biologikoekiko esposizioarekin lotutako arriskuetatik babesteko; 665/1997 Errege Dekretua, langileak agente kantzerigenoekiko esposizioarekin lotutako arriskuetatik babesteko; 9/2003 Legea eta 178/2004 Errege Dekretua, GEOak konfinatuta erabiltzeari, borondatez askatzeari eta merkaturatzeari buruzkoa; eta TES/1287/2021 Agindua, zeinaren bidez egokitzen baita, aurrerapen teknikoan arabera, 664/1997 Errege Dekretua, langileak lanean agente biologikoekiko esposizioarekin lotutako arriskuetatik babesteari buruzkoa.
- Agente Biologikoen eta Genetikoki Eraldatutako Organismoen Ikerketetarako Etika Batzordearen (ABIEB) nahitaezko aldeko txostena lortzea, aintzat harturik Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko erabakia, UPV/EHUko ikerketan eta irakaslanean etika organoak arautzeari buruzkoa (EHAA, 32 zk., 2014-02-17)

22.4. Deialdi honen baitan egin nahi diren ikerlanetan erabili nahi badira gizakien enbor zelula amak edo haietatik eratorritako zelula lerroak, kontuan hartu beharko dira: 45/2003 Legea, 2132/2004 ED, enbrioi aurreko soberakinetatik lortutako enborreko zelulekin ikerketa proiektuak garatzea eskatzeko baldintzak eta prozedurak ezartzen dituen, eta 09/2014 ED, uztailaren 4koa, giza zelulak eta ehunak emateko, erazteko, ebaluatzeko, prozesatzeko, zaintzeko, biltegitratzeko eta banatzeko kalitate eta segurtasun arauak ezartzen dituen.

Horrez gain, giza jatorriko lagin biologikoak behar bezala lortu eta erabiltzeko, kontuan izan beharko da giza laginekin eginiko ikerketari buruzko 1716/2011 ED, azaroaren 18koa, ikerketa biomedikoa egiteko eta giza jatorriko lagin biologikoak tratatzeko biobankuak baimentzeko eta haien funtzionamendurako oinarriko baldintzak ezartzen dituen, eta ikerketa biomedikorako Biobankuen Erregistro Nazionalaren funtzionamendua eta antolamendua arautzen dituen. 290. zenbakidun BOE, 2011ko abenduaren 2koa, ostirala.

22.5. Deialdi honen baitan egingo diren ikerlanek ez dute lagunduko gerrarik pizten edo bultzatzen; zehazki, ez diete lagunduko, ez zuzenean ez zeharka, armak sortzen edo merkaturatzen dituzten enpresei.

22.6. Deialdi honen baitan egingo diren ikerlanek errespetatu egingo dute UPV/EHUren Ikerketako Jardunbide Egokien Kodea, bai eta ikerketaren etika, osotasun eta jokabide arduratsuaren arloan aplikatzekoa den araudia ere. Betebehar horiek ez betetzeak proiektua etetea ekar dezake, dagokion prozedura bideratu ondoren, bai eta, hala badagokio, emandako laguntza osoa edo zati bat baliogabetzea eta jasotako zenbatekoak itzultzea ere.

#### **AZKEN XEDAPENETATIK LEHENA**

Administrazio bidea amaitzen duen deialdi honen aurka jarri ahal izango da administrazioarekiko auzi errekurtsua, Bilboko administrazio auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, deialdia argitaratzen denetik. Aurrekoa gorabehera, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua ere jarri ahal izango da Ikerketa Errektoreordetzaren aurrean, deialdia argitaratu eta hilabeteko epean, aintzat hartuta 39/2015 Legearen 123. artikulua.

#### **AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA**

Deialdi hau indarrean egongo da Ikerketa Errektoreordetzaren webgunean argitaratuko den egunetik aurrera.

Leioa, 2026ko Martxoaren 17a

Juan Ignacio Umerez Urrezola  
Ikerketa Errektoreordea

## **I. ERANSKINA: AURREKARGAREN IRIZPIDEAK**

➤ **Taldeak osatuko dituen langileei dagokienez:**

Erreferentziatzat hartuko da UPV/EHU kontratatutako langileria, 2. oinarrian ezarritako irizpideen arabera. Ildo horretan, kanpoan geratuko dira irakasle elkartuak, bitarteko lan-kontratadun langileak eta lanaldi partzialeko ordezkioak; salbuespen bakarra izango dira hitzarmen bidez unibertsitate-ospitaleetako irakaskuntza-unitateei lotuta daudenak.

LOB (lanaldi osoko baliokidea) kalkulatzeko, langileen irakaskuntza eta ikerketa-gaitasuna hartuko da kontuan, haien dedikazioarekin lotuta.

➤ **Taldeari lotutako merezimenduei dagokienez:**

• **Finantzaketa (proiektuak/kontratuak):**

Aurrekargatik kanpo geratuko dira kongresuak antolatzeko laguntzak, egiturei lotutako laguntzak (CICak, sailak, etab.), baita proiektu estrategikoak ere (PES).

Zenbatekoak esleitzeko, bi prorrateo egingo dira:

- Emandako zenbatekoa, kontuan hartutako aldiaren exekuzio-denboraren arabera.
- Proiektuko taldekideen artean, ebazpenaren unean ikerketa-taldearen parte diren kideen ehunekoa.

• **Argitalpenak:**

Erreferentziatzat hartuko dira UPV/EHUko Ekoizpen Zientifikoaren Atarian jasotako argitalpenak: <https://ekoizpen-zientifikoa.ehu.eus/>

• **Tesiak:**

Erreferentziatzat hartuko dira GAURen erregistratutako eta defendatutako tesiak.

• **Predoc/Postdoc kontratazioak:**

Erreferentziatzat hartuko dira Ikertu datu-basean erregistratutako Predoc/Postdoc laguntzak. Horretarako, kontratu horien zuzendariak (Predoc) eta arduradunak (Postdoc) lotuko dira ikerketa-taldeko kide diren pertsonekin.

Kontratu horri lotutako zenbatekoa kalkulatzeko, UXXI aplikazio ekonomikoan aztertutako ekitaldian edo ekitaldietan aitortutako obligazioak hartuko dira kontuan.